

KOSTUEN EGITURA

Kostuen egiturarekin jarraituz, gure produktuaren kostuak bi taldeetan banatuko ditugu. Alde batetik, materialaren kostua, eta beste alde batetik, ekoizpenaren kostua. Materialaren kostuari dagokionez, nagusiena tableta izango litzateke tableta erosiko dugun materialik garrantzitsu eta garestiena izango baita. Ondoren, ekoizpenaren kostuetara joko dugu. Ekoizpenaren kostuari dagokionez, mahaia egiteko behar dugun materiala izango da garrantzitsuena, izan ere, mahaia guk geuk egingo ditugu eta horretarako material konkretu bat beharko dugu. Bestalde, librezale elkarteari irabazitako portzentai bat ere eman beharko diogu, donazio moduan ezarriz euren izaera independentea errespetatuz, beraz azken hau ere ekoizpenaren kostuetan sartuko genuke.